*Trafikoa ibilbidean zehar: ibilgailuak 6:00etarako kendu beharko dira. EZ da zamañik egingo sokamuturra amaitu arte.

***Erabat debeekatuta dago 16 urtetik beherakoei sokamuturretan parte hartzea.**

9. Ezinezkoa da goitibeheren entrenamenduak egitea. Proba egiten den bitartean, San Roke-Arregitorre-Erretsundi inguruko trafikoa itxita egongo da.

10. TRAFIKOA HERRIKO JAIETAN:

Itxita egongo da herri barruko trafikoa jaietako egun guztietan.

11. Debeekatuta dago giza dorreak egitea eta toki garaietatik jauzi egitea. Era berean, debeekatuta daude norbanakoen osotasun fisikoa arriskuan jar dezaketan ekintza guztiak.

12. Komun publikoak erabil itzazu, kaleak garbi mantentzeko.

ADI EGON zure poltsa, diru-zorro eta telefono mugikorrari.

1. El Ayuntamiento se reserva el derecho de modificar, suprimir o suspender alguno de los actos programados por causas de fuerza mayor.

2. Atiende las instrucciones del personal municipal o de los y las agentes de la autoridad. No entorpezcas las labores de limpieza, ni de los servicios municipales; ten en cuenta que hay personas que trabajan para que las y los demás disfrutemos de las fiestas.

3. Respetémonos y cuidémonos mutuamente, para que podamos disfrutar y gozar en fiestas. Sin causar molestias a nadie. ¡Está en nuestras manos que las fiestas sean del gusto de todas las personas! Además, para poder garantizar el cuidado del municipio, respetemos el entorno natural y el urbano.

4. No está permitida la venta de petardos, cohetes o similares y lanzarlos.

5. Se recuerda que está prohibida la venta de alcohol a menores de 18 años y la venta de alcohol por menores de 18 años.

6. Si bebes, no conduzcas.

7. Utiliza el transporte público. Consulta los servicios especiales de trenes nocturnos en la web www.euskotren.eus.

8. SOKAMUTURRA

*Recorrido: Maala y las calles San Frantzisko, San Bartolome, Errosario, Santa Ana y San Ignazio.

*Día 25: (desde el King-Kong) 8:00-11:00.

*Día 26: 8:00-11:00.

*Día 30: 8:00-11:00.

*Tráfico en el recorrido: se deben retirar los coches para las 6:00. NO habrá carga y descarga hasta que terminen las sokamuturras.

***Está terminantemente prohibida la participación de menores de 16 años en las sokamuturras.**

9. No se podrán realizar entrenamientos de goitibeheras. Durante la prueba, el tráfico permanecerá cerrado en San Roke-Arregitorre-Erretsundi.

10. TRÁFICO EN LA CIUDAD, DURANTE LAS FIESTAS: Cerrado durante todas las fiestas.

11. Prohibido hacer torres y saltar desde las alturas, y todo acto que pueda poner en peligro la integridad física de nadie.

12. Usa los servicios públicos para mantener las calles limpias.
PRESTA ATENCIÓN a tu bolso, cartera y teléfono móvil.

ELGOIBARKO LANBIDE HEZIKETAREN 125. URTEURRENA

125 ANIVERSARIO DEL INICIO DE LA FORMACIÓN PROFESIONAL EN ELGOIBAR

EZENARRO ARANBURU, BERNARDO

Bernardo Ezenarro Aranburu (1873-1956). Marrazketako maisua eta Arte eta Lanbide Eskolako zuzendaria.

Elgoibarren jaio zen 1873ko abuztuaren 20an, eta Jose Domingo Ezenarro eta Petra Frantziska Aranburu senar-emazteen lau seme-alabetatik gazteena izan zen. Bernardo Ezenarro Maria Osororekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten: Roman (margolari zaletua) eta Luis (apaiza eta Elgoibarko historialaria).

Marrazketako maisu handia izan zen. 13 urterekin marrazketa lineala eta artistikoa ikasten hasi zen Eibarren. Donostian ikasketak sakondu ostean, Parisko Arte Akademian amaitu zituen, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka bati esker.


Elgoibarrera itzultzean, Marrazketa Akademia sortu zuen 1899an, eta marrazketa linealeko, apaingurako eta figuratiboko espezialitateak irakatsi zituen bertan. Arte eta Lanbide eskola izango zenaren lehen urratsa izan zen, Udalak 1916an

Bernardo Ezenarro Aranburu (1873-1956). Maestro de dibujo y director de la Escuela de Artes y Oficios.

Nació en Elgoibar el 20 de agosto de 1873, siendo el menor de cuatro hermanos/as del matrimonio de José Domingo Ezenarro y Petra Francisca Aranburu. Bernardo Ezenarro, a su vez, casó con María Osoro, teniendo dos hijos: Román (aficionado al arte pictórico) y Luis (sacerdote e historiador de Elgoibar).

Fue un gran maestro de dibujo. A los 13 años comenzó a estudiar dibujo lineal y artístico en Eibar. Tras profundizar sus estudios en San Sebastián, los terminó en la Academia de Arte de París, gracias a una beca concedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

De regreso a Elgoibar, fundó una Academia de Dibujo en 1899, impartiendo las especialidades de lineal, ornamental y figurativo. Así, este centro fue el primer paso de la futura escuela de Artes y Oficios que el Ayuntamiento abrió en 1916 con los





ireki baitzuen aipatutako eskola, honako irakasle hauekin: Jose Yeregi apaiza (fisika), Marino Rodríguez (aritmetika eta geometria), Pedro Larrañaga (frantsesa eta merkataritza-praktikak), Bernardo Ezenarro (marrazketa lineala eta dekorati-boa).

Bertako irakasle eta hainbat urtetan zuzendari izan zena 78 urterekin jubilatzen zen. Guztira, 52 urte egin zituen irakas-kuntzan. 1952ko ekainaren 29an Udalak omenaldia egin zion. Hona hemen egun horretan antolatu ziren ekintzak Bernardo maisuaren ohoretan: - 10:00etan meza parrokiari hildako ikasle ohien alde, agintarien presentziarekin; - 11:00etan Lanbide Heziketako Mekanika Eskolako 1951-52 ikasturtearen amaiera: egindako lana, kontuak, balantzea, ikasleei notak irakurtzea eta sarien banaketa...; Don Bernardori omenaldia eta oparia (album artistikoa ikasle ohi guztien sinadurekin); 12:00etan Don Bernardoren bustoa jartzea Eskolako marrazketa gelan; ikasleek ikasturtean zehar egindako lanen erakusketaren irekiera; 13:30ean Don Bernardori eskainitako ohorezko oturuntza Azoka plazan, agintari gailenak buru izanik.



siguientes profesores: el sacerdote José Yeregi (física); Marino Rodríguez (aritmética y geometría); Pedro Larrañaga (francés y prácticas comerciales); Bernardo Ezenarro (dibujo lineal y decorativo).

Quien había sido profesor y director de dicho centro se jubiló a los 78 años, dedicando en total 52 años a la docencia. El 29 de junio de 1952 fue homenajeado por el Ayuntamiento, programándose los siguientes actos en honor al maestro Don Bernardo: - A las 10:00 misa en la parroquia por los antiguos alumnos fallecidos, con la presencia de las autoridades; - A las 11:00 acto de fin del curso 1951-52 de la Escuela de Mecánica de Formación Profesional: trabajo realizado, cuentas, balance, lectura de notas a los alumnos y entrega de premios; homenaje y obsequio a Don Bernardo (álbum artístico con las firmas de todos los ex alumnos); a las 12:00 colocación del busto de Don Bernardo en la sala de dibujo de la Escuela; apertura de la exposición de los trabajos realizados por los alumnos durante el curso. A las 13:30 banquete de honor dedicado a Don Bernardo en la plaza de abastos, presidido por las máximas autoridades.



1956ko martxoaren 21ean hil zen, eta egun hartako iluntzean, zegokion bilkura egin zuen Elgoibarko Udalak (Roman Ezenarro, Bernardoren semea, zinegotzia zen eta ez zen bertan izan arrazoi horregatik), eta erabaki zuen aho batez saioa amaitzea, dolua egiteko. Oso argigarria da aktan idazkariak jaso zuena Bernardo Ezenarriori buruz: *“... pérdida que supone para el pueblo de Elgoibar la muerte de tan preclaro hijo eximio artista del pincel y maestro indiscutible...de la Escuela de Artes y Oficios dejando tras de sí una estela de triunfos y una pléyade de discípulos que le honran y admiran y representa el florón magnífico del progreso, laboriosidad y pujanza espiritual de este pueblo ejemplar”*.

1969an herriko kale bati haren izen-abizena jartzea erabaki zuen Udalbatzak. Lanbide Heziketako Institutuak haren deiturara ere izan zuen.

Pello Arrieta Soraiz

Falleció el 21 de marzo de 1956, y al anochecer de ese día, el Ayuntamiento de Elgoibar se reunió para celebrar la correspondiente sesión ordinaria (Román Ezenarro, hijo de Bernardo, era concejal y no asistió por dicho motivo), acordándose por unanimidad levantar la sesión en señal de duelo. Es muy ilustrativo lo recogido en el acta por el secretario municipal, sobre la figura de Bernardo Ezenarro: *«La pérdida que supone para el pueblo de Elgoibar la muerte de tan preclaro hijo eximio artista del pincel y maestro indiscutible» de la Escuela de Artes y Oficios dejando tras de sí una estela de triunfos y una pléyade de discípulos que le honran y admiran y representan el florón magnífico del progreso, laboriosidad y pujanza espiritual de este pueblo ejemplar»*.

En 1969 la Corporación decidió poner su nombre a una calle de la villa. También el Instituto de Formación Profesional llevó el nombre: *“Bernardo Ezenarro”*.

Pello Arrieta Soraiz



HAURTZAROKO OROITZAPENAK...
DORRE-ESKALATZAILEAK

RECUERDOS DE LA INFANCIA...
LOS ESCALATORRES



Denboraren iraganari aurre egin nahian, oroitzapenen bitartez haurtzarora egiten diren bidaia magikoetan, ezabatu ezin diren gogorapenak sortzen dira. Duela urte batzuk, orri hauen berauen bidez, haurrak ginela, RO-KE-TXU mago apartarekin izandako bizipenak etorri zitzaizkidan gogora. Oraingoan, aspaldiko urte haietako oroitzapen bizi bat datorkit: dorre-eskalatzaileak gure herrira etorri zireneko egun ziragarria. Jende ausarta zen, tximinoen pareko trebetasuna zuena, lasaitasun ikaragarri lekuri sinestezinenetatik, gure kasuan, parrokiako dorretik gora, arnesik eta inolako segurtasun neurrik gabe, eskuen eta hanken beste laguntzarik gabe igotzen ziren benetako “fenomenoak”. Oso gogoan dut ikuskizun hura ikusi nuen estreinako aldia. Igande eguerdia zen, zortzi edo bederatzi urte izango nituen. Plaza lepo zegoen erabat. Dorre-eskalatzaile bat egongo zela iragarri zen, eta herritar andana joan zen emanaldi hura ikustera. Ziotenez, dorrearen kanpoaldetik igoko zen, inolako laguntzarik gabe. *Ezinezkoa da hori!* garrasi egiten genuen guztiz konbentziturik.

Esandako orduan, gazte lirain bat agertu zen parrokiako dorreko lehengo balkoian, hain zuzen ere, elizako sarrerako arku nagusiaren gainean dagoen balkoian. Bertaratutako ikusle ugarietara agur egin, eta, besterik gabe, goranzko bideari ekin zion. Gauza harrigarria izan zen. Gizon hark, itxuraz, ez zekien bertigoa zer zen. Eskuak eta hankak zirrikitu guztietara itsasten zitzaizkion. Izugarria zen gizon hura hormetan gora ikustea; izan ere, gure begientzat, horma haiek zeharo lauak ziren. Zitzu bizian, gorantz jarraitu zuen gelditu gabe. Oztopo guztiak gainditu zituen, berriz diot, inolako segurtasun neurrik gabe, eta, azkenean, dorrearen lekuri garaienera iritsi zen, kupularen gaineko gurutzera. Han, mundu guztiak, tentsio handiz, gerta zitekeenarengatik arnasari eusten zion bitartean, gure gizona gurutzearen lekuri altuenean jarri zen, eta zilborra leku horren gainean zentratu, ahozpe jarri zen, eta eskuei eta hankei eragiten hasi zen, amildegi baten gainean igeri egiten ariko balitz bezala. Ikusle askok begiak ixten zituzten, oharkabea, istripu larriren bat gertatuko zenaren beldurrez. Eta etenik gabe, akrobazia arrisksuak egiten jarraitu zuen leku horretan bertan.

Plaza osoa txaloka hasi zen, hain zen sinestezina ikusten ari ginena! Guztiak adi-adi begiratzen zuten goietan zer gertatzen ari zen. Baina jaitsi egin behar zen plazara. Eta igoera azkarra izan bazen ere, jaitsi zorabiatzeko modukoa izan zen. Bost minutu baino gutxiago behar izan zituen berriro ere balkoira iristeko. Handik berriro ere agur egin zien ikusle sutsuei, eta, ondoren, joan egin zen.

Beherantz zihoala, dorre-eskalatzailearen taldeko bizpahiru emakume ikusleen artean zebiltzan azkar-azkar, eskuetan saski

En los mágicos viajes a la niñez efectuados a través de los recuerdos, surgen evocaciones indelebles que desafían el paso del tiempo. Hace unos años, a través de estas mismas páginas, rememoré nuestras vivencias infantiles con el genial mago RO-KE-TXU. En esta ocasión surge otro vívido recuerdo de aquellos lejanos años: la emocionante presencia en nuestra localidad de los intrépidos escalatorres. Se trataba de gente valiente, con habilidad simiesca, auténticos fenómenos con una enorme sangre fría que trepaban por los sitios más inverosímiles -en nuestro caso por la torre parroquial- sin arnés ni medida de seguridad alguna, solamente con la ayuda de sus manos y pies. Recuerdo perfectamente la primera vez que presencié tal espectáculo. Era un domingo al mediodía, tendría yo ocho o nueve años. La plaza se encontraba totalmente abarrotada. Se había anunciado la presencia de un escalatorres y el pueblo acudía en masa a presenciar el espectáculo. Decían que iba a trepar por el exterior de la torre sin ayuda alguna. *¡Eso es imposible!* exclamábamos nosotros totalmente convencidos.

A la hora anunciada apareció un estilizado joven en el primer balcón de la torre parroquial, balcón situado justo encima del arco principal de entrada a la iglesia. Saludó al numerosísimo público congregado y sin más preámbulos comenzó a trepar. Fue una cosa asombrosa. Para aquel hombre, el vértigo debía ser algo totalmente desconocido. Sus manos y pies se aferraban a cualquier resquicio. Impresionaba verle trepar por paredes, a nuestros ojos totalmente lisas. A gran velocidad continuó su imparable ascensión. Fue superando todos los obstáculos su repito, sin ninguna medida de seguridad, hasta que por fin llegó al punto más alto de la torre, a la cruz que corona la cúpula. Allí, mientras todo el mundo contenía la respiración -con altas dosis de tensión por lo que pudiera ocurrir-, nuestro hombre se situó en el punto más alto de la cruz, centrando su ombligo sobre dicho punto; se colocó en posición horizontal y comenzó a agitar manos y pies como si estuviera nadando en el vacío. Muchos espectadores cerraban los ojos temerosos de que, al menor descuido, se produjera un fatal accidente. Y sin pausa, continuó realizando arriesgadas acrobacias en ese mismo punto.

Toda la plaza prorrumpió en grandes aplausos, jera tan increíble lo que veíamos! Nadie perdía detalle sobre lo que ocurría en las alturas. Pero todavía tocaba bajar hasta la plaza. Si la subida fue rápida, el descenso fue vertiginoso. En menos de cinco minutos estaba de nuevo en el balcón, donde volvió a saludar al apasionado público, retirándose a continuación.

Mientras realizaba el descenso, dos o tres mujeres del equipo

batzuk zituztela, jendeari borondatez eman nahi zutena eskatzen. Haurrak ginenez, gugana hurbildu ere ez ziren egin; izan ere, bazekiten gure finantza ahalmena hutsala zela. Baina adinekoek bai, haiek laguntzen zuten. Asko neskekina hurbiltzen ziren dohaintza ematera, eta, bitartean, ikusi berri genuen ikuskizun harrigarria aipatzen zuten.

Urteen poderioz, gertakari horri buruzko informazio bila ari nintzela, ikusi nuen dorre-eskalatzailea Ramon Diaz Iglesias zela, "El Águila de Oviedo" gaitzizenaz ezagutzen zutena. Pintorea zen lanbidez, eta dorre-eskalatzailea gelditzen zitzaion denboran.

Bere curriculumean ageri zen 18 katedral eta eliza igo zituela, bestek beste, Oviedokoa, Santiagokoa, Burgoskoa edo Leonekoa. Aurrerago, pintore ofizioari utzi eta bete-betean ekin zion dorreak eskalatzeari. Ofizio aberasgarriagoa zen... eta askoz ere arriskutsuagoa. Handik hiruzpalau urtera, Elgoibarrera itzuli zen, eta, berebiziko arrakastarekin, ikuskizun berbera eskaini zuen jendez lepo zegoen plazan.

Artista horrek lan horrekin jarraitu zuen beste urte batzuetan. Hauxe irakurri dezakegu 1968ko urriaren 18an Oviedoko 'La Nueva España' egunkarian argitaratu zen erreseina batean:

"Jose Ramon Diaz Iglesias 'el Águila de Oviedo' dorre-eskalatzailea gure erredekziara etorri da Japoniako telebistako ekoizle den Masako Nasaok eskaini dion kontratuari buruzko xehetasunak jakin nahirik. Nasao Madrilerira iritsi da 'Espectáculos sorpresa mundiales' bere programarako trebetasunik bitxiak dituzten pertsonen bila. 'El Águila de Oviedo' ilusio handiz dago Tokiora telebistako izar gisa joateko aukerarekin. Orain, bidaiaren eta ekitaldiaren baldintza ekonomikoak adostea besterik ez da gelditzen".

Lortu zuen gure gizonak bere helburua betetzea? Izan al zuen japoniar harrizkoen aurrean aritzeko aukerarik? Izan al zuen arrakastarik Japonian? Ez du gu horri buruzko albistearik.

Baina 35 bat urte lehenago, 1926ko uztailean, beste dorre-eskalatzaile batzuk ere izan ziren Elgoibarren. Puertollanotarrak ziren, agian, inoiz izan ziren dorre-eskalatzaile entzutetsuenak. Haien ospeak mugak gainditu zituen, eta erregeen, estatu buruen eta abarren aurrean jardun zuten. Jose Puertollano deitzen zen aitzindaria.

del escalatorres circulaban entre el público a toda prisa portando unas cestas pidiendo la voluntad. A nosotros, críos, ni se acercaban; eran conscientes de nuestra nula capacidad financiera. Pero la gente mayor sí que colaboraba. Muchos se acercaban a las chicas a aportar su donativo, mientras comentaban el increíble espectáculo que acabábamos de presentiar.

Al cabo de los años, indagando sobre este acontecimiento, vi que el escalatorres se llamaba Ramón Díaz Iglesias, apodado "El Águila de Oviedo". Era pintor de profesión y escalatorres en sus ratos libres. En su curriculum figuraba que había ascendido a 18 catedrales e Iglesias, entre ellas las de Oviedo, Santiago, Burgos o León. Más tarde dejó el oficio de pintor y se dedicó en exclusiva a escalar torres, un oficio más lucrativo... e infinitamente más peligroso. Unos tres o cuatro años más tarde volvió a visitar Elgoibar, ofreciendo la misma función con extraordinario éxito ante una abarrotadísima plaza.

Este artista continuó con esta labor durante varios años más. Leemos en el periódico 'La Nueva España' de Oviedo esta reseña de fecha 18 de octubre de 1968:

"El escalatorres José Ramón Díaz Iglesias, el 'Águila de Oviedo' se presentó en nuestra redacción, interesado en conocer más detalles acerca del contrato que le ha sido ofrecido por el productor de la televisión japonesa Masako Nasao, que ha llegado a Madrid en busca de gentes con las más sorprendentes habilidades para su programa 'Espectáculos sorpresa mundiales'. El 'Águila de Oviedo' está ilusionado ante la perspectiva de ir a Tokio como estrella de la televisión. Ahora sólo falta que se pongan de acuerdo respecto a las condiciones económicas del viaje y la actuación".

¿Conseguiría nuestro hombre su propósito? ¿Actuaría ante los sorprendidos japoneses? ¿Triunfaría en el país nipón? No tenemos noticia alguna al respecto.

Pero unos 35 años antes, en julio de 1926, otros escalatorres ya habían visitado Elgoibar. Se trataba de Los Puertollano, quizás los más famosos escalatorres que ha habido nunca. Su fama cruzó fronteras, actuando sobre reyes, jefes de estado, etc. El pionero se llamaba José Puertollano. Había nacido en Granada y siendo muy joven, se enroló en el Circo Feijoo donde actuaba como malabarista. Allí conoció a la que sería su mujer, también malabarista. De esa unión nacerían varios hijos, siendo dos de ellos, Miguel y Gloria, los que continuarían con la tradición paterna.



Granadan jaio zen, eta, oso gazterik, Feijoo zirkuan sartu zen malabarista gisa. Han ezagutu zuen bere emaztea izan zena. Hura ere malabarista zen. Ezkontza hartatik, hainbat seme-alaba jaio ziren, eta horietako bik, Miguelek eta Gloriak aitaren tradizioarekin jarraitu zuten.

1909ko uztailaren 25ean, Alfonso XIII.a erregeak Santiago de Compostela bisitatu zuen, Antonio Maura gobernuko presidentek lagundurik. Hirira iritsi ziren Apostoluari eskaintza aurkezteko eta Urte Santu hartan egin zen Galiziako Erakusketa historikoa inauguratzeko. Obradoiro plazan zegoela, katedrale-ra sartzeko prest, ahots batek goitik deiadar egin zion: Maies-tate! Erregeak eta plaza guztiak gorantz begiratu zuten. Eta han, laurogeita bost metroko altueran, giza irudi nimiño bat ikusi zuten jauziak, molineteak eta oreka ariketa sinestezinak egiten. Jose Puertollano zen, tximistorratzaren puntara igota. Baimena eskatu zien agintariei leku horretara igotzeko. Ukatu egin zioten baimena, baina Josek ez zuen atzera egin. Gauean, hutsik zegoen plazatik abiatuta, goraino igo zen. Behin gora iritsita, aldean zeraman soka atera eta gurutzeari lotu zitzaion. Seko egin zuen lo han goian eta, egunsentian, ardo trago eder bat egin ondoren, erregea agertzeko zain egon zen, eta agur egin zion goietatik. Jaitsi zenean, atxilotu egin zuten. Hala ere,

El 25 de julio de 1909, el rey Alfonso XIII visitaba Santiago de Compostela acompañado por el presidente del gobierno Antonio Maura. Habían llegado a la ciudad para presentar la ofrenda del Apóstol e inaugurar la histórica Exposición Gallega celebrada aquel Año Santo. Cuando se encontraba en la plaza del Obradoiro, dispuesto a entrar a la catedral, una voz desde las alturas le gritó: ¡Majestad! El rey y toda la plaza miraron hacia arriba. Y allí, a ochenta y cinco metros de altura divisaron una diminuta figura humana que realizaba cabriolas, molinetes e inverosímiles equilibrios. Era José Puertollano, encaramado en la punta del pararrayos. Había solicitado permiso a las autoridades para subir a ese punto, permiso que le fue denegado pero José no se achantó. De noche, desde una plaza vacía, trepó hasta lo más alto. Una vez arriba, sacó una cuerda que portaba y se ató a la cruz. Allí durmió a pierna suelta y al amanecer, tras un buen trago de vino, esperó a que apareciera el rey y le saludó desde las alturas. Cuando descendió fue detenido. Sin embargo, Alfonso XIII, totalmente maravillado con lo que había presenciado, se dirigió a él y le felicitó efusivamente, exigiendo su libertad. Había nacido un mito.

A partir de entonces, no hubo catedral o iglesia por muy monu-



Miguel Puertollano

Alfonso XIII.a, ikusi zuenarekin guztiz liluraturik, berarengana hurbildu, sutsuki zoriondu, eta libre utz zezatela agindu zuen. Mito bat jaio zen.

Ordutik aurrera, ikusgarrien artean ikusgarriena izanagatik, ez zuen katedralik edo elizarik igo gabe utzi. Compostelako kabildoak, iritsi ostean pikutara bidali zuenak, leku garaietako tximistorratzak zuzentzeko, haize-orratzak konpontzeko eta mota guztietako lanak egiteko agintzen zion. Gero eta sarriago, seme Miguelek laguntzen zion igoera guztietan. 1918ra arte, Galizian bizi izan ziren, baina urte horretatik aurrera, estatu osoan ibili ziren atzera eta aurrera. Sevillako Giralda, Burgosko katedrala, Zaragozako el Pilar, Santo Domingo de la Calzadako katedrala, Oportoko elizgizonen dorrea... ezerk ez zien eskuetatik ihes egin gure protagonistei.

Eta, horrela, 1926. urtera iritsiko gara. Puertollanotarrak, bi mandok tiratutako gurdí batean bizi eta ibiltzen zirenak, harriturik gelditu ziren gure parrokiako dorre barrokoaren edertasuna ikusi zutenean; bazirudien dorre horren igoera ikuskizun bikaina izango zela. Ceferino Urrestarazu parroko jaunari baimena eskatu zioten, eta arazorik gabe eman zien baimena. Baina on Ceferino bazerabilen zerbait ezkutuan, aurrerago ikusiko dugun bezala. Erabaki zuten eskalada igandean, uztailaren 18an, egingo zutela arratsaldeko seietan. Berehala, Puertollanotarrek abian jarri zuten haien *marketing* kanpaina berezia: pregoilariaren zerbitzuak kontratatu zituzten (Txanbolin familia ugariko edozein kide), danbor arrada luze baten ostean, “herri honetan,

mental que fuera que se le resistiera. El cabildo compostelano, que a su llegada lo había despachado con cajas destempladas, le encargaba ahora enderezar pararrayos, arreglar veletas y cualquier tipo de trabajo a realizar en las alturas. Cada vez más frecuentemente, su hijo Miguel le acompañaba en todas las ascensiones. Hasta 1918 residieron en Galicia pero a partir de ese año se dedicaron a recorrer todo el país. La Giralda sevillana, la Catedral de Burgos, el Pilar de Zaragoza, la torre de la Catedral de Sto. Domingo de la Calzada, la torre de los Clérigos de Oporto... nada se les resistía a nuestros protagonistas.

Y llegamos así al año 1926. Los Puertollano, que viajaban y vivían en un carromato tirado por dos mulas, quedaron sorprendidos ante la belleza de nuestra barroca torre parroquial; la ascensión a esa torre prometía ser un espectáculo brillante. Pidieron permiso al párroco D. Ceferino Urrestarazu, permiso concedido sin problemas. Pero D. Ceferino guardaba un as bajo la manga, como veremos más adelante. Acordaron que la escalada se realizaría el domingo 18 de julio a las seis de la tarde. Inmediatamente, los Puertollano pusieron en marcha su particular campaña de *marketing*: contrataron los servicios del pregonero (cualquier miembro de la numerosa familia Txanbolin) que tras un prolongado redoble de tambor anunciaba en todos los rincones de la localidad “la actuación en este pueblo de los mejores escalatorres del mundo”. La expectación era máxima. Todo Elgoibar quería ser testigo de las hazañas de los Puertollano. Y no fue para menos. En el periódico republicano ‘La Voz de Guipúzcoa’ del 21 de julio de 1.926 leemos: “TRIUNFO DE LOS

munduko dorre-eskalatzaile hoberenen ekitaldia” iragartzeko. Jakinmina ikaragarria zen. Elgoibar osoak Puertollanotarren balentrien lekuko izan nahi zuen. Eta ez zen gutxiagorako izan. ‘La Voz de Guipúzcoa’ egunkari errepublikarrean, 1926ko uztailaren 21ean, hauxe irakurri dezakegu. “PUERTOLLANO DORRE-ESKALATZAILEEN ARRAKASTA ELGOIBARREN. Igande arratsaldean, eta jende andanaren aurrean, erakustaldia egin zuten Puertollano dorre-eskalatzaile ospetsuek. Igotzen hasi aurretik, nabaria zen ikusleak urduri samar zeudela, inolako zalantzarik gabe, eskalatzaileek ezbeharren bat izango zuten beldur zirelako. Seiak eta hogeian Puertollano jaunak (semea) bakarrik ekin zion gorako bideari; izan ere, aita, ofizio arriskutsu honetako maisu denak, ez zuen igo nahi izan. Puertollano gazteak erakutsi zituen arintasuna eta lasaitasuna hain izan ziren handiak, ezen ez baitago ezer esateko beharrik. Zuzen ibili zen, eta filigranak egin zituen, eta erlaintzetako belarrak ere kendu zituen. Hamabost minutu bakarrik behar izan zituen igo eta jasiteko. Artikulu honen goiburuan ageri den argazkian ikus dezakegu –argazki guztiak herriko aitzindari izan zen Victoriano Azkuek egindakoak dira- Miguel Puertollano gurutzaren gainera igo zela, eta, han, besoak zabaldurik agur egin ziola plaza bete hartan zegoen ikusle andanari.

Egunkari horri berorri esker, badakigu ikusleen artean Gobernadore Zibila ere egon zela; izan ere, berariaz etorri zen Donostiatik emanaldi hura ikusteko. Argazkiei begiratzean, ikusten dugu, batzuetan, Miguel bakarrik ageri dela, eta beste batean, bi direla dorre-eskalatzaileak: Miguel eta bere aita Jose. Zergatik, ordea? Oso erraza da: Puertollanotarrek on Ceferinori baimena eskatu ziotenean, hark, estrategia trebea baitzen, igotzeko baimena eman zien, dorreko gurutzea eta haize-orratza margotzeko baldintzarekin. Brotxak eta pintura Parrokiak jarri behar zituen. Puertollanotarrek baldintza hori inolako zalantzarik gabe onartu zuten. Igoera ofiziala uztailaren 18an egin bazen ere, hurrengo egunean, hirurak aldera, biek, aita-semeek dorrea eskalatu zuten berriro ere on Ceferinoren agindua betetzeko. Hark goragotik igotzen hasteko aukera eman zien, kanpaik auden lekutik, baina ezezkoa eman zioten eskaintzari: behetik igo ziren. Gora iritsitakoan, eta margotzen hasi aurretik, beste akrobazia bat eskaini zuten: Miguel, berriro ere, zutik jarri zen gurutzaren gainean, eta aita, berriz, haize-orratzaren gainean, argazkian ondo baino hobeto ikusi daitekeenez. Astelehena zenez, eta, gainera, bigarren igoera hori modu ofizialean iragarri ez zenez, ikusi daiteke dezente ikusle gutxiago bertaratu zirela. Argazkian ikusi daiteke frontisaren atzeko hormaren akabera berezia, baita horma horri atxikitako komun zaharrak ere.

Bi hilabete beranduago, Donostiako Artzain Onaren katedrala

ESCALATORRES PUERTOLLANO EN ELGOIBAR. El domingo por la tarde y ante numerosísima concurrencia, hicieron su exhibición los famosos escalatorres Puertollano. Antes de comenzar la ascensión, se notaba entre el público presente cierta inquietud, sin duda por el temor de que pudiera ocurrirles algún contratiempo. A las seis y veinte empezó a subir el señor Puertollano (hijo) únicamente, pues el padre, que es maestro en este arriesgado oficio, no quiso hacerlo. Tal ligereza y sangre fría demostró el joven Puertollano, que todo lo que se diga es poco. Anduvo derecho y haciendo filigranas y hasta quitando la hierba de las cornisas. Entre subir y bajar empleó solamente quince minutos”. Podemos ver en la imagen que encabeza este artículo -fotografías realizadas todas ellas por el pionero local Victoriano Azkue- cómo Miguel Puertollano se encaramó encima de la cruz y con los brazos extendidos saludó a la numerosísima multitud que abarrotaba la plaza.

A través del mismo periódico sabemos que entre el público asistente estuvo también el Gobernador Civil, expresamente venido de San Sebastián para presenciar el espectáculo. Al observar las fotografías, vemos que en unas aparece solamente Miguel y en otra son dos los escalatorres: Miguel y su padre José. ¿A qué es debido esto? Muy sencillo: cuando los Puertollano pidieron permiso a Don Ceferino, éste -hábil estrategales autorizó la ascensión condicionando el permiso a que le pintaran la cruz y la veleta de la torre. Las brochas y la pintura las aportaría la Parroquia. Tal condición fue aceptada por los Puertollano sin objeción alguna. Aunque la ascensión oficial fue el domingo 18 de julio, al día siguiente hacia las tres de la tarde, ambos, padre e hijo, volvieron a escalar la torre para cumplir con el encargo de D. Ceferino. Éste les brindó la oportunidad de comenzar la ascensión más arriba, desde la zona de las campanas, pero declinaron la oferta: treparon desde abajo. Al llegar arriba y antes de comenzar a pintar, ofrecieron una nueva acrobacia: Miguel nuevamente de pie encima de la cruz y su padre apoyado en la veleta, tal como puede observarse perfectamente en la fotografía. Como era lunes y además no se había anunciado oficialmente esta segunda ascensión, puede verse que la afluencia de público es sensiblemente menor. Obsérvese también el curioso acabado de la pared trasera del frontis, así como los antiguos urinarios adosados a dicha pared.

Dos meses más tarde trepaban por la donostiarra Catedral del Buen Pastor. Según la prensa, se reunieron en torno a la catedral “más de diez mil almas”. El público abarrotaba la plaza de la iglesia, las calles colindantes -desde la calle Loiola la gente llegaba hasta la Avenida- y los balcones, ventanas y



Aita-semeak goietatik agur egiten
Padre e hijo saludando desde las alturas

igo zuten. Hedabideen arabera, “*hamar mila lagun baino gehiago*” inguratu ziren katedralera. Ikuslez beterik zegoen elizako plaza, eta ondoko kaleak –Loiola kaletik Abenidaraino iristen zen jendea- balkoiak, leihoak eta zabaltzak ere bai. Eta hedabideek honela jarraitzen dute: “*Puertollano familiako neskato politek, saskitxoak eskuetan harturik, aurreikusitako diru-bilketa egin zuten. Egun hartakoa oso ugaria izan omen zen, saskitxoak berehala betetzen baitziren diru xehearekin eta zilarrezko txanponekin*”.

Jose Puertollanok aitortu zuen bizitzan behin bakarrik sentitu zuela beldurra, eta hori ez zela altuerarengatik izan, baizik eta, gosez hiltzeko arriskuagatik. Bai bera, bai bere seme Miguel berez hil ziren. Lanean ari zirela, inoiz ez zuten istripurik izan. Haien trebetasun zoragarria atsegingarria eta liluragarria izan zen milaka eta milaka pertsonarentzat, eta miresmen handia sortu zuten izan ziren leku guztietan.

Gaur egungo umeez kontsola sofistikuak eta bideo-joko ikusgarriak dituzte, eta Spider-Manen film bikainak ikusten dituzte. Guk, teknologia hori ezagutu ez genuenok, hala ere, Spider-Man-*ez gozatu genuen zuzenean. Horretan, behintzat, garaile atera ginen.*

Txomin Mujika Latxa

azoteas. Sigue la prensa: “*lindas muchachas pertenecientes a la familia Puertollano armadas con cestillas, hacían la colecta prevista que debió ser abundantísima, ya que se llenaban rápidamente a base de calderilla y monedas de plata*”.

Confesaba José Puertollano que la única vez que había sentido miedo en su vida no fue a las alturas sino a morir de hambre. Tanto él como su hijo Miguel fallecieron de muerte natural. Jamás tuvieron un accidente en el desempeño de su tarea. Lograron que miles y miles de personas disfrutaran y se maravillaran de su increíble habilidad, causando profunda admiración por todos los rincones.

Los chavales de hoy disponen de sofisticadas consolas y espectaculares videojuegos mientras visionan logradísimas películas de Spider-Man. Nosotros, que no conocimos esa tecnología, sin embargo disfrutamos de Spider-Man en vivo y en directo. Por lo menos, en eso les ganamos.

Txomin Mujika Latxa



**GORA
GUZTION
JAIK!**



ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO